

## 2011ko EPE

### Administrari laguntzaileen eta Fisioterapeuten kategoriak

#### interesdunentzako informazioa ondoriozko fasean

Uztaila amaitu baino lehen argitaratuko dira webean destinoen esleipenari buruzko ebazpenak; hau da, izangaiek jarritako gora jotzeko errekurtsoen gainean Osakidetzako Administrazio Kontseiluak emandako ebazpenen ondoriozkoak. Izendapenak EHAAn irailean argitaratuko dira; nolana ere, Osakidetzak horien berri emango du webean uztailean, argibide modura. Ebazpenak uztailean argitaratzeko arrazoia prozeduran parte hartzen dutenei ahalik eta informazio gehien ematea da. Izendapenek, berriz, irailean izango dituzte ondorio juridikoak eta orduan hasiko dira lanean izangaiek; hain zuzen ere, esleipendunei udako oportetean (abuztua) daukaten egoera pertsonala ez aldarazteko.

Behin aurreko esleipendunak lanpostuaz jabetu direnean, Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren ebazpen bitartez argitaratuko da ondoriozko fasean geratutako lanpostu hutsen zerrenda. Esleipendunek nola jokatzeko duten, lehenengo paragrafoan adierazi den legez (hau da, esleitu zaien lanpostuaz jabetzen diren ala ez, eszedentzia eskatzen duten...), horren arabera izango da ondoriozko faseko destinoen eskaintza: bai destinoen behin betiko kopurua, bai horien ezaugarri zehatzak. Ondoriozko faseko destinoak eskaintzeko ebazpena argitaratu eta 15 egun baliodun igarota egingo da eskaintako destinoen esleipena.